

Gervasio Sánchez kazetariaren argazki erakusketa inauguratuko da Gasteizen

40 irudi, Latinoamerika, Asia eta Europako hamar herrialdetan desagertutako pertsonak oroitzeko

Erakusketa azaroaren 19ra arte egongo da ikusgai Montehermoson

Gasteizko Udalak “Desagertuak” erakusketa inauguratuko du bihar, 19:30ean, Montehermoson, eta hitzaldi bat emango du Gervasio Sánchezek, erakusketaren egile eta lan ibilbide luzeko argazki-kazetariak. Azaroaren 19ra bitartean Montehermoso kulturunean ikusgai izango dira erakusketa hau osatzen duten 40 irudiak. Proiektuaren egileak adierazi duenez, erakusketa horrek Latinoamerika, Asia eta Europako hamar lurraldetako pertsonen



nahitaezko desagertpena eta horien familiek desagertuen memoria, egia eta justizia aldarrikatzeko egiten duten borroka nekazina kontatzen du; errepresioaren biktima izanik preso egon zireneko zentroetan abiarazitako bidaia bihurriaren emaitza.



Erakusketa bihar inauguratuko da 19:30etik aurrera Montehermoson, jende ororentzat irekita egongo den hitzaldi bat dela medio. Udalak bisita gidatuak antolatu ditu erakusketa ikusteko, astearte eta ostegunetan, 9:00etatik 14:00etara. Bisitak doakoak dira baina aldez aurretik izena eman beharra dago, urriaren 28a baino lehen, Montehermosora edo Garapenean Laguntzeko Zerbitzura deitu edo idatziz: telefonoak: 945 161830 / 945 161654; helbide elektronikoak: info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org / mmartinezml@vitoria-gasteiz.org.

Erakusketak Gasteizko udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzua, Euskal Fondoak, La Casa Encendida, Gaztela eta Leongo Batzarra, Bartzelonako kultura garaikideko zentroa eta MUSAC ditu antolatzaile.

Gervasio Sánchez

Hamabi argazki libururen egile, hainbat sari eskuratu ditu, horien artean: Cirilo Rodríguez, Club Internacional de Prensa, Andalucía de Cultura, Derechos Humanos de Periodismo, Liber Press, Javier Bueno, Ortega y Gasset eta argazkigintzako sari nazionala.

Kordobako kazetari honen lanak *Heraldo de Aragón* eta *La Vanguardia* egunkarietan argitaratzen dira. Horretaz gain, *Cadena Ser* eta *BBC*rekin lan egiten du.

1998tik, Unescoren bakearen aldeko ordezkari berezia da.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko arriaren 22an

Vitoria inaugura mañana una exposición fotográfica del periodista Gervasio Sánchez

40 imágenes en memoria de personas desaparecidas en diez países de América Latina, Asia y Europa

La muestra estará abierta en Montehermoso, hasta el 19 de noviembre

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz inaugurará mañana a las 19,30 horas en el Centro Cultural Montehermoso, la exposición **Desaparecidos**, con una conferencia a cargo del autor de la muestra, el **foto-periodista Gervasio Sánchez**, que cuenta con una dilatada trayectoria profesional. Hasta el 19 de noviembre, Montehermoso acogerá las 40 imágenes que componen esta obra, donde Sánchez relata “la desaparición forzosa de personas en diez países de América Latina, Asia y Europa así como la lucha incansable de sus familias para reivindicar memoria, verdad y justicia”, fruto de “un viaje tortuoso que arranca en centros de detención donde permanecieron cautivas víctimas de la represión”, en palabras del autor del proyecto.



La exposición, que se inaugura mañana a partir de las 19,30 horas en Montehermoso con una conferencia abierta a todo el mundo, podrá recorrerse además a través de visitas guiadas que el Ayuntamiento ha programado para los martes y jueves de 9 a 14 horas. Estas visitas guiadas son gratuitas, pero requieren de inscripción previa, que podrá realizarse hasta el próximo 28 de octubre en Montehermoso, el servicio municipal de Cooperación al Desarrollo, llamando al 945 161830 / 945 161654 o vía e-mail, info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org / mmartinezml@vitoria-gasteiz.org.

El Consistorio de Vitoria es organizador de esta muestra a través del servicio de Cooperación al Desarrollo, junto a Euskal Fondoa, La Casa Encendida, Junta de Castilla y León, Centre de Cultura Contemporànea de Barcelona y MUSAC.

Gervasio Sánchez

Autor de una docena de libros fotográficos, ha sido galardonado con numerosos premios, entre los que destacan el Cirilo Rodríguez, Club Internacional de Prensa, Andalucía de Cultura, Derechos Humanos de Periodismo, Liber Press, Javier Bueno, Ortega y Gasset y Premio Nacional de Fotografía 2009.

Los trabajos de este periodista cordobés se publican en *Heraldo de Aragón* y *La Vanguardia*, asimismo colabora con *Cadena Ser* y *BBC*.

Desde 1998, es enviado especial por la paz e la UNESCO.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2013